

BABES eta HIGIENE NEURRIAK ARRIAGA ANTZOKIA berriro irekitzean

Une honetan lehentasun nagusia zure segurtasuna eta osasuna direnez, osasun arloko agintariek emandako jarraibideetara egokitzeko prestatu dugu antzokia. Emanaldi guztiek babes eta higie-neurri zorrotzak beteko dituzte. Hau da jakin behar duzun lehenengoa:

1. **Maskara:** antzoki barruan beharrezkoa izango da maskara erabiltzea eraikiner-a sartzean, emanaldian zehar eta eraikinetik irtete-an. Ikus-entzule bakoitzak bere maskara ekarriko du etxetik. Antzokiak maskara kirurgiko bat emango die maskararik ez duten edo etxean ahaztu duten pertsoneri.
2. **Eskuak garbitzea:** Antzokira sartzean beharrezkoa izango da eskuak garbitzea jende guztiaren esku egongo den gel hidro-alkoholikoarekin. Komunetan ere egongo da horretarako xaboia.
3. **Antzokia egunero garbitzea:** Gure instalazioak sakon garbitzen eta desinfektatzen dira egunero: igarobideak, besaulkiak, eskudelak... Komunak gutxienez egunean birritan desinfektatzen dira.
4. **Seinaleztapena:** Antzokiko seinalaztapena berrantolatu dugu. Horrela, sarreratik bertatik, eta antzokiko gune guztietan, ibilbideak adieraziko dira, galtzea saihesten duten, pertsonen arteko 1,5 - 2 metroko distantzia bermatzen duten, eta igarobidean jende pilaketak eta gurutzaketak ekiditen dituzten seinala espezifikoe-kin.
5. **Igogailuak:** Igogailuak, urritasuna edo mugikortasun urria duten pertsonen eta haurdun dauden emakumeek baino ezin izango dituzte erabili.
6. **Eskailerak:** Aretorako sarbidea eskaileretatik baino ez da egingo. Atariko alboko eskailerak gaitu dira. Eskailera bakoitzak bereizitako igoyerako eta jaitsierako ibilbidea du markatuta. Atariko eskailera nagusia antzokiko komunetara joateko baino ez da erabiliko.
7. **Komunak:** Erabili ahal izango diren komun bakarrak foyerrean eta atarian daudenak izango dira, bertara sartzeko itxaronaldi ordenatua eta gorde beharreko tarteak gordetzeko aukera ematen baitute. Gainerako komunak itxi egin dira, jende asko egonez gero ez dituztelako segurtasun tarteak gordetzeko baldintzak betetzen. Mesedez, pazientzia eta denboraz joatea eskatzen dugu, dauden mugak kontuan izanda.

8. **Igarobideak:** Eserleketara sartzeko igarobideak neurtu ditugu, eta 1,5 m - 2 metroko gutxieneko distantzia errespetatzen da. Ibilbidea markatuta dago, eta igarobide bakoitzak noranzko bakarra izango du, gurutzaketak saihesteko.
9. **Aretoa:** Aretoaren edukierak ez ditu 246 besaulkiak gaindituko. Gizarte-distantzia bermatzeko, aurretik esleitu zaizun besaulkiak edo zure bizikidetzaren taldeari esleitu zaizkionak, hutsik dauden bi besaulki edo igarobidea izango dituzte alboetan. Gainera, besaulki ilara osoak kendu ditugu. Horrek, igarobide berrietatik errazago igarotzeko aukera ematen du, besteei igarotzen uzteko zure eserleketatik altxatu behar gabe.
10. **Bizikidetzaren unitatea:** Elkarren ondoan egongo diren bi eserlekuren edo gehiagoren salmenta, bi pertsonak edo gehiagok osatutako familia edo bizikidetzaren unitateentzako egokituko da. Hori behar bezala betetzeko, beharrezkoa izango da pertsona guztiek pandemiaren kontra izan beharreko erantzukizuna.
11. **Arropazaindegia eta anbigua:** Aplikatu beharreko erregulazioen ondorioz, ezin dugu arropazaindegi eta anbigu zerbitzurik eman.
12. **Ateak irekitzea:** Antzokiak emanaldia hasi baino hiru ordu laurden lehenago irekiko ditu ateak. Mesedez, ez itxaron azken unera arte antzokira sartzeko eta, behin antzokian, ahalik eta azkarren joan bakoitzari dagokion eserlekura.
13. **Besaulkien patiora sartzeko:** Besaulkien patiora erdiko atetik baino ezin izango da sartu. Alboko ateak besaulkien patiotik irteteko baino ez dira erabiliko.
14. **Besaulkien patiotik irtetzea:** Aretotik irteteko alboko ateak erabiliko dira, eta ez atzealdeko erdiko atea. Emanaldia amaitzean, mezu baten bitartez adieraziko da atetik gertuen dauden pertsonen lehentasuna izango dutela irteteko. Lehenengo irtengo direnak 9. eta 10. ilarak izango dira. Ondoren 1etik 7ra bitarteko ilarak eta, azkenik, 11tik 19ra bitartekoak. Bitartean, ikus-entzuleek euren besaulkietan itxarongo dute eserita, dagokien txanda heldu arte. Mesedez, izan pazientzia.
15. **Eskuko programak eta aldizkariak:** Arautegiak debekatzen du eskuko programak eta aldizkariak ematea.
16. **Eguneratzea:** Osasun gomendioen garapenari eta une bakoitzean indarrean dauden arauak helduta, neurriak eguneratuko dira eta horri buruz berri emango da.

Ez dugu zalantzarik. Arriaga antzokira zatozenean zure ardura bakarra ikuskizunaz gozatzea izango da, ez duzu beste ezertaz arduratu beharko.

Zu hartzeko prest gaude!